PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES

OSATEK-EKO LANGILEAK EUSKARAZ TREBATZEKO PRESTAKUNTZA-ZERBITZUA KONTRATATZEA

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE FORMACIÓN PARA CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA DEL PERSONAL DE OSATEK

G/211/20/1/0007/0701/0000/112019

1. XEDEA

Baldintza Teknikoen Agiri honen xedea da OSATEK-EKO LANGILEAK EUSKARAZ TREBATZEKO PRESTAKUNTZA-ZERBITZUAREN kontratazioaren lizitazioan 2020. urtean aplikatu beharreko zehaztapenak definitzea. Honako lote hauen arabera definituko dira:

1. Oinarrizko hizkuntza-gaikuntzako taldeak
2. Euskararen erabilera dinamizatzeko taldeak

Baldintza Teknikoen Agiri honetan azaldutako zehaztapenek zehazten dute, halaber, zer baldintza bete behar dituzten dagokion lizitazioa esleitzea aukeratzen duten eskaintzek. Administrazio Baldintza Partikularren Agirian adierazitakoarekin kontraesanik badago, azken horretan adierazitakoa nagusituko da.

2. ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

- Enpresa esleipendunak hasierako eta amaierako diagnostiko bat egingo du, prestakuntza-taldeetan parte hartzen duten langile guztiei idatzizko eta ahozko probak eginez, eta diagnostikoaren emaitzak bildu, kudeatu eta OSATEKera bidaliko ditu euskarri informatikoan.

- Enpresa esleipendunak prestakuntzan parte hartzen duen OSATEKeko profesional bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egingo du, eta honako informazio hau jasoko du: bertaratzea, puntualtasuna, prestakuntzaren aurreko jarrera, ematen denaren asimilazio-maila eta errendimendua, jasotako prestakuntzaren gogobetetze-inkesta eta etorkizuneko neurri zuzentzaileak. Horretarako, aldizkako txostenak egingo ditu, eta OSATEKera bidaliko ditu euskarri informatikoan.

- Enpresa esleipendunak beharrezko materiala emango die ikasleei, euskarri fisiko eta informatikoan.

- Enpresa esleipendunak sortutako eta erabilitako materiala eta metodologia bat etorriko dira HABEk, IVAPek eta/edo Osakidetzak erabilitakoarekin. Material hori paperean eta euskarri informatikoan inprimatuta emango zaio OSATEKi, eta material horren egiletza eta ustiatzeko eskubide guztiak OSATEKenak izango dira.

- Enpresa esleipendunak HABEren aurrean homologatuko ditu OSATEKeko langileek jasotako prestakuntza-orduak, ahal izanez gero.

- Enpresa esleipendunak egindako ordu-kopuruaren ziurtagiri pertsonalak emango ditu, eta, hala badagokio, ikasle bakoitzak egiaztatutako maila ofiziala.

- Enpresa esleipenduna prestakuntza kudeatzeaz arduratuko da Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioaren aurrean.

- Enpresa esleipendunak, prestakuntza-ekintza hasi aurretik, ikasketa-programa bat diseinatuko du. Programa hori OSATEKek onartu beharko du, eta erabili beharreko materialak eta ezarritako helburuak lortzeko jarraitu beharreko metodologia jasoko ditu.

- Ordutegiak/irakasleak/ikasleak/taldeak/prestakuntza emateko lekuak OSATEKen beharretara egokitu beharko dira.

- Prestakuntza-prozesuaren edozein unetan, OSATEKek irakasleak berehala aldatzeko eskatu ahal izango du, baldin eta OSATEKek eskatzen dituen kalitate-parametroak betetzen ez baditu. Parametro horiek honako hauek dira: gaitasun didaktikoa eta motibatzailea, irakaslearen dinamismoa eta ikasleen gogobetetze-maila.

3. ZERBITZUAREN BALDINTZA ZEHATZAK

3.1. LOTE 1 OINARRIZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZAKO TALDEAK

3.1.1. XEDEA

Taldekako prestakuntza modalitate honen helburua da euskaraz ez dakiten OSATEKeko langileek, edo oinarrizko maila dutenek, zentro eta txanda guztietan euskarazko arreta eta zerbitzua ziurtatzeko adinako euskara maila lortzea. Beraz, ez dira izango euskara tituluak lortzeko edo langileak erabat euskalduntzeko, baizik eta prestakuntza espezifikoa eskaintzeko, eguneroko lanaren oinarrizko egoeretan moldatzeko aukera izan dezaten.

3.1.2. BALDINTZAK

Prestakuntza-modalitate hau 2020an zehar garatuko da, honako hauen bidez:

- **Aurrez aurreko saioak,** bi ordukoak, 12:30-14:30 ordutegian, astelehenetik ostiralera. 3 txanda egongo dira, bakoitza 110 ordukoa **(330 ordu):**
  - Arabako langileentzat, Txagorritxuko unitatean (José Achótegui z/g, Vitoria-Gasteiz): urtarrilaren 14tik martxoaren 31ra.
  - Bizkaiko langileentzat, Bizkaia Plazako eraikinean (Urkixo zumarkalea, 36-5. solairua, Bilbo): 2020ko apirilaren 14tik ekainaren 30era.
  - Gipuzkoako langileentzat, Donostiako unitatean (Dr. Beguiristain pasealekua 109): irailaren 14tik azaroaren 30era.

  Talde bakoitzeko ikasle-kopurua gutxienez 4 eta gehienez 6 izango da.

- Banakako ikaskuntzako **online sistema** partikularra, parte-hartzaile bakoitzaren hasierako mailara egokitua, txanda bakoitzak irauten duen bitartean 24x7 erabilerarekin.

- **Tutoriak**. Ebaluazio-, jarraipen- eta aholkularitza-baliabide gisa, gutxienez bi (2) tutoretza pertsonalizatu egingo dira parte-hartzaile bakoitzarekin.

3.2. LOTE 2 EUSKARAREN ERABILERA DINAMIZATZEKO TALDEAK

3.2.1. XEDEA

Taldekako prestakuntza-modalitate honen helburua da, alde batetik, zentroetako paziente eta erabiltzaileei eguneroko zerbitzua eta informazioa euskaraz ere eskaintzen ikastea, eta, bestetik, egunero beste lan-harreman batzuk euskaraz egin ahal izateko behar besteko hizkuntza-gaitasuna eskuratzea (lankideekin, hornitzaileekin, administrazioarekin …). Prestakuntza horren hartzaileek, gutxienez, B1 euskara maila (egiaztatua edo ez) izan behar dute, hau da, euskara ulertzeko eta hitz egiteko gutxieneko maila, baina ohitura faltagatik ez du erabiltzen.

3.2.2. BALDINTZAK

Prestakuntza-modalitate horrek **210 eskola-ordu ditu guztira**, honela banatuta:

3 talde antolatuko dira unitate hauetan:

- Txagorritxu (José Achótegui z/g, Vitoria-Gasteiz)
- Galdakao (Labeaga auzoa, z/g)
- Donostia (Dr.Beguiristain pasealekua, 109)

Saioak astean bi (2) ordukoak izango dira, bi (2) egunetan banatuta, eta talde bakoitzean zehaztu beharrekoak, ordu batekoa (1) izango da bakoitza. 70 ordu urtean talde bakoitzean.

- Donostia: 14:00-15:00
- Galdakao eta Txagorritxu: 14:15-15:15

Talde bakoitzak data hauek izango ditu 2020an:

- Lehen epea: urtarrilaren 14tik martxoaren 31ra.
- Bigarren epea: apirilaren 14tik ekainaren 30era.
- Hirugarren epea: irailaren 14tik azaroaren 30era.

Talde bakoitzeko ikasle-kopurua gutxienez 4 eta gehienez 6 izango da.

Enpresa esleipenduneko irakasleak gutxienez hilean bitan koordinatuko dira, eta koordinatzailearen figura egongo da, OSATEKeko kontratuaren arduradunarekin solaskide izango dena. Biek koordinazio arina eta etengabea izango dute.

Modalitate honetan eskainitako prestakuntzak espezifikoa eta pertsonalizatua izan beharko du, batez ere ahozko lan-komunikazioak lantzeko (aurrez aurrekoak eta telefonoz egiten direnak).

Oharra: *euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean kontraesanik edo desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa nagusituko da.*

1. OBJETO

El objeto del presente Pliego de Prescripciones Técnicas es la definición de las especificaciones de aplicación en la licitación de la contratación del SERVICIO DE FORMACIÓN PARA CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA DEL PERSONAL DE OSATEK en el año 2020 que se definirán de acuerdo a los siguientes lotes:

1. Grupos capacitación lingüística básica
2. Grupos dinamización de uso del euskera

Las especificaciones expuestas en este Pliego de Prescripciones Técnicas, definen también las condiciones que deben cumplir las ofertas que opten a la adjudicación de la correspondiente licitación. En caso de contradicción con lo indicado en el Pliego de Condiciones Administrativas Particulares, prevalecerá lo indicado en este último.

2. CONDICIONES GENERALES DEL SERVICIO

- La empresa adjudicataria realizará un diagnóstico inicial y final consistente en pruebas escritas y orales a todo el personal que participe en los grupos de formación, y los resultados del diagnóstico serán recogidos, gestionados y enviados a OSATEK en soporte informático.

- La empresa adjudicataria realizará un seguimiento personalizado de cada profesional de OSATEK participante de la formación, donde constará la siguiente información: asistencia, puntualidad, actitud ante la formación, nivel de asimilación y rendimiento de lo impartido, encuesta de satisfacción de la formación recibida y medidas correctoras futuras. Para ello, confeccionará informes periódicos que serán enviados a OSATEK en soporte informático.

- La empresa adjudicataria proveerá al alumnado del material necesario, en soporte físico e informático.

- El material y la metodología creados y empleados por la empresa adjudicataria se corresponderá con el utilizado por HABE, IVAP y/o Osakidetza. Dicho material se le entregará a OSATEK impreso en papel y en soporte informático, y la autoría de dicho material, así como todos los derechos de explotación del mismo, corresponderá a OSATEK.

- La empresa adjudicataria homologará ante HABE las horas de formación recibidas por el personal de OSATEK, siempre que fuera posible.

- La empresa adjudicataria emitirá certificados personales del número de horas cursado y, si así corresponde, nivel oficial acreditado por cada alumno/a.

- La empresa adjudicataria se encargará de la gestión de la formación ante la Fundación Estatal para la Formación en el Empleo.

- La empresa adjudicataria, previamente al inicio de la acción formativa, diseñará un programa de estudios, que deberá ser aprobado por OSATEK, que incluya los materiales a utilizar y la metodología a seguir para la consecución de los objetivos establecidos.

- Los horarios/profesorado/alumnado/grupos/lugares de impartición de la formación deberán adecuarse a las necesidades de OSATEK.

- En cualquier momento del proceso formativo, OSATEK podrá solicitar el cambio inmediato del personal docente, si éste no cumple con los parámetros de calidad exigidos por OSATEK, parámetros que se traducen en la capacidad didáctica y motivadora, en el dinamismo de la persona docente, así como en el nivel de satisfacción del alumnado.

3. CONDICIONES ESPECÍFICAS DEL SERVICIO

3.1. LOTE 1 GRUPOS CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA BÁSICA

3.1.1. OBJETO

El objetivo de esta modalidad de formación en grupo es que el personal de OSATEK que no sabe euskera, o que tiene un nivel básico, consiga un nivel de euskera suficiente como para asegurar la atención y el servicio en euskera en todos los centros y turnos. Por lo tanto, no serán para conseguir títulos de euskera o para euskaldunizar completamente al personal, sino para ofrecer formación específica con el fin de que puedan desenvolverse en las situaciones básicas del trabajo diario.

3.1.2. CONDICIONES

Esta modalidad formativa se desarrollará a lo largo de 2020 mediante:

- **Sesiones presenciales** de dos horas, de 12:30 a 14:30, de lunes a viernes.
  Habrá 3 turnos, de 110 horas cada uno **(330 horas):**
  - Para el personal de Álava, en la unidad de Txagorritxu (José Achótegui s/n, Vitoria-Gasteiz): del 14 de enero al 31 de marzo.
  - Para el personal de Bizkaia, en el edificio de Plaza Bizkaia (Alameda Urquijo, 36-5ª planta, Bilbao): del 14 de abril de 2020 al 30 de junio.
  - Para el personal de Gipuzkoa, en la unidad de Donostia (Paseo Dr.Beguiristain 109): del 14 de septiembre al 30 de noviembre.

  El número de alumnos en cada grupo será de un mínimo de 4 y de un máximo de 6.

- **Sistema online** de aprendizaje individual y particular, adecuado al nivel inicial de cada participante, con disposición 24X7 durante el periodo de duración de cada turno

- **Tutorías**. Como medio de evaluación, seguimiento y asesoramiento se realizarán, como mínimo, dos (2) tutorías personalizadas con cada participante.

3.2. LOTE 2 GRUPOS DINAMIZACIÓN DE USO DEL EUSKERA

3.2.1. OBJETO

El objetivo de esta modalidad de formación en grupo es, por un lado, que aprendan a ofrecer a los pacientes y usuarios de los centros el servicio y la información diaria también en euskera; y por otro, que adquieran capacidad lingüística suficiente para poder llevar a cabo otro tipo de relaciones diarias de trabajo en euskera, (con compañeros, proveedores, administración…). Los destinatarios de esta formación deben tener, como mínimo, el nivel B1 de euskera (acreditado o no), es decir, un nivel mínimo para entender y hablar euskera, pero que por falta de costumbre no lo utiliza.

3.2.2. CONDICIONES

Esta modalidad formativa consta de **un total de 210 horas lectivas**, repartidas de la siguiente manera:

Se crearán 3 grupos en las siguientes unidades:

- Txagorritxu (José Achótegui s/n, Vitoria-Gasteiz)
- Galdakao Barrio Labeaga s/n
- Donostia (Paseo Dr.Beguiristain 109).

Las sesiones serán de dos (2) horas semanales, repartidas en dos (2) días, a determinar en cada uno de los grupos, de una (1) hora cada una. 70 horas anuales en cada grupo.

- Donostia: 14:00-15:00
- Galdakao y Txagorritxu: 14:15-15:15

Las fechas de impartición de cada grupo en 2020 serán:

- 1er plazo: del 14 de enero al 31 de marzo.
- 2º plazo: del 14 de abril al 30 de junio.
- 3er plazo: del 14 de septiembre al 30 de noviembre.

El número de alumnos en cada grupo será de un mínimo de 4 y de un máximo de 6.

El profesorado de la empresa adjudicataria se coordinará al menos dos veces al mes y existirá la figura de coordinador que será la persona interlocutora con el responsable del contrato en OSATEK. Ambos mantendrán una coordinación fluida y continua.

La formación ofrecida en esta modalidad tendrá que ser específica y personalizada, destinada sobre todo a trabajar las comunicaciones orales habituales de trabajo (las presenciales y las que se realizan por teléfono).

Nota: *En caso de contradicción o discrepancia entre las versiones en euskera y castellano, prevalecerá la versión en castellano*